



GKEFGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado



Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioaren helburu nagusia da, kirol eta jarduera fisiko egokitua eta inklusiboa antolatzea eta sustatzea Gipuzkoan. Desgaitasun egoera ezberdinak dituzten pertsona orok kirola egin ahal izateko eskubidea bermatzeko lan egiten dute.

Mindara aniztasun funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkartea da.

19 GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN Federazioarekin eta MINDARA Elkartearekin solasean:

Kirola ez da leiha bakarrik...

Edo lehia izanik ere, ez punta puntako izarrena bakarrik.

Kirola ez da joko bakarrik...

Edo hala izanik ere, emaitza baino gehiago da jokoan dagoena.

Kirola bada jolas ere, edo izan daiteke, eta izatea nahi dugu.

Kirola bada aisia ere, edo izan daiteke eta hala gozatu nahi dugu. Bakoitzak bere dohain eta zailtasun...

Kirola bada gureztat ere eta zureztat eta edonorentzat. Mugimendua, barrua dantzatzea, dibertsioa eta taldetasuna ere bada kirola.

Saiatu eta lortu; edo ez lortu. Saiatu eta saiatu, eta gozatu eta ikasi.

Elkarrekin.

Mindara eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioaren misioa, jarduera fisiko inklusiboa, kirol egokitua, aisialdia eta formakuntza lantzea dira.

Nahi ibili gurekin?



**DESBERDINTASUNAK
IKUSARAZTEN,
AUKERAK SORTUZ**

20 NAHI IBILI GUREKIN?

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Maialen Lujanbio

Ahotsak, trikitixa, panderoa: AMAK

Bagoaz
pozik txistu joaz
gure pilota ta pala...
Jostatzera ta jokatzera
pilotalekua hartzera.

Bagatoz
pozik txistua joz
gure gurpil eta baloi...
Uztaien azpira
Ametsak saskira!

NAHI IBILI GUREKIN?
NAHI ARI ELKARREKIN?
Neurri hau da neurea
Bakoitzak du berea...

NAHI JOATEA ZUEKIN?
TA ARI ELKARREKIN?
Gure ezin
Gure dohai
Jokatzen dugu, bai!

Bagoaz
pozik txistu joaz
gure soin ta gure soinu...
Dantatzera ta gozatzera
herriko plaza hartzera.

Bagatoz
pozik txistua joz
txano eta bainujantzi...
Igerilekura
gozamen putzura.

NAHI ETORRI GUREKIN?
TA ARI ELKARREKIN?
Gure ezin
Gure dohai
Jolasten dugu, bai!

NAHI IBILI GUREKIN?
NAHI ARI ELKARREKIN?
Modu hau da neurea
Bakoitzak du berea (ta)...

... NAHI JOATEA ZUEKIN?
TA ARI ELKARREKIN?
Gure ezin
Gure dohai
Jokatzen dugu, bai!
Gozatzen ere bai!